

MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2023KO URTARRILA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,2 igo dira 2023ko urtarrilean

Aurreko hilaren aldean (2022ko abendua), salmentak % 2,8 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko merkataritza-gune handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 2,2 egin dute gora 2023ko urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

2022ko abenduarekin alderatuta, behin urtaro-ondorioak kenduta, prezio konstanteetako salmentak % 2,8 igo dira urtarrilean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikaduraren sektorean, prezio konstanteetako salmentak % 3,9 hazi dira hil arteko terminoetan. *Gainerako produktuen* sektorean, salmentek % 0,9 egin dute gora aurreko hilaren aldean.

Urte arteko terminoetan, 2023ko urtarrilean 2022ko urtarrilaren aldean, prezio konstanteetako salmenten bilakaera negatiboa izan da *Elikaduran*, % 1,1eko jaitsierarekin; *Gainerako produktuetan*, berriz, salmentak % 8,1 handiagoak izan dira aurreko urteko hil berean baino.

insertatabla_19356

2023ko urtarrilean, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak urtetik urtera hazi egin dira Bizkaian eta Gipuzkoan, % 4,2 eta % 0,1, hurrenez hurren. Araban, aldiz, salmentak % 1,0 jaitsi dira prezio konstanteetan eta lan-egutegiko termino homogeneoetan.

2022ko abenduarekin alderatuta, hau da, hil arteko terminoetan, salmentak igo egin dira hiru lurraldeetan, % 4,4 Gipuzkoan, % 2,7 Araban eta % 2,0 Bizkaian, prezio konstanteetan eta behin urtaro-ondorioak kenduta.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langileen kopurua % 3,6 igo da 2022ko urtarrilaren aldean. Hil artean, aldiz, langileen indizea % 0,5 igo da.

INFORMAZIO OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta, hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea **% 100eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62